

# RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK


## ELIKAGAIK

2015ko LEHENENGO LAUHILEKOA

Jakinarazpenen kategorizazioa  
Jakinarazpenen jatorria  
Kutsadura iturrien sailkapena  
Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak


### JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA

2015ko lehenengo lauhilekoan animalien elikagaiei buruzko 913 jakinarazpen izan dira. Horietatik 230 alertak izan dira (%25), 221 informazio-jakinarazpenak (%24,5) eta 462 mugan egin diren ukapenak (%50,5).



### JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




**Asiari** dagokionez, kutsatzaileen % **25,5a Txinakoak** dira eta jarraian **Turkia** dugu: kasuen % **25a. Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdeak **Espainia** eta **Polonia** izan dira, biek % **14**arekin. **Afrikaren** kasuan, **Egiptok**, jakinarazpenen %**32** izan ditu. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **Brasil** da jakinarazpen gehien sortzen duena (% **39**).

### KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2014ko 1. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 858 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturriak	%
Kutsadura biologikoa	%26
Mikotoxinak/biotoxinak	%22
Hondakinak	%21,5
Iruzurrak	%10
Kutsadura kimikoa	%9,5
Produktuaren egoera higieniko txarra	%5
Metal astunak	%4,5
Kutsadura fisikoa	%1,5



## KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % **83**an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % **42a** eragin du. Kasu gehienetan (% **57,5a**) kakahuetea **Txinatik** zetorren.

**Kutsadura biologikoei** dagokienez, **salmonelek** kutsaduren % **58a** eragin ditu. **Salmonella sp** da talde honetako protagonista nagusia kasuen % **82**an. **Sesamoa** izan da produktu protagonista %**37,5**eko kasuetan, %**95**eko kasuetan India jatorria zelarik. Beste salmonelei dagokienez, % **10,5a** **Salmonella enteritidis** dagokio (oilaskoak eragin ditu kasuen % 71,5a eta %90ko kasuetan Europa izan da jatorria) eta %**7,5a** **Salmonella typhimuriumi** (eskortako hegaztiak eragin dituzte kasuen % 90a, eta %100ean Europa izan da jatorria).

Bestalde, **Listeria** dugu bigarren kutsatzaile nagusia: kasuen % **16a**. Inplikaturako produktuei dagokienez: **izokin ketua** (% **50a**). **Listeriak** eragindako jakinarazpen gehienak **Polonia** jatorria zuten (%**89a**).

Hondakinei dagokionez, **pestizidak** %**85a** dira eta medikamentuak %15a. Pestiziden kasuan, **barazkiak** inplikatuak daude kasuen %**54**an eta gehienak (%**53a**) **asiarrak** dira.

**Metal astunei** buruz esan behar da **merkurioak** eragin dituela jakinarazpen gehien; zehazki, % **56a**. Ezpatarraina protagonista izan da %61eko kasuetan eta jatorria Espainia %64an.

ITURRIA	ZK	AGENTEA	ZK(%)	PRODUKTU ERAGILEA	ZK(%)	JATORRIA	ZK(%)
<b>Mikotoxinak/Biotoxinak</b>	203	<b>Aflatoxinak</b>	168 (83%)	kakahueteak	70 (42 %)	Txina	43(67,5%)
<b>Kutsadura biologikoa</b>	236	<b>Salmonella sp.</b>	136 (58%)				
		<i>Salmonella sp.</i>	112 (82%)	sesamo	42(37,5%)	India	40(95%)
		<i>S.enteritidis</i>	14 (10,5%)	oilaskoa	10(71,5%)	Europa	9 (90%)
		<i>S.typhimurium</i>	10 (7,5%)	eskorta hegaztiak	9 (90%)	Asia	9 (100%)
		<b>Listeria</b>	38 (16%)	izokin ketua	19 (50%)	Polonia	16 (89%)
<b>Metal astunak</b>	41	<b>Merkurioa</b>	23(56%)	ezpatarraina	14 (61%)	Espainia	9 (64%)
<b>Hondakinak</b>	195	<b>Pestizidak</b>	166 (85%)	barazkiak	88 (54%)	Asia	47 (53%)
		<b>Botikak</b>	29 (15%)	haragia	10(34,5%)	Amerika	7 (70%)

## ETIKETAN ADIERAZI GABEKO ALERGENOAK

Jakinarazitako iruzurren kasuetatik %47a, hau da kasuen ia erdia, etiketan alergenok ez dituztelako adierazi izan dira.

ELIKAGAIK	Nº (%)	JATORRIA	Nº (%)
<b>Plater prestatuak</b>	16 (38%)	Europa	12 (75%)
<b>Konfitegintza, gozogintza eta pastelgintza produktuak</b>	10 (24%)	Europa	9 (90%)
<b>Fruta lehortua eta espeziak</b>	9 (21,5%)	Asia	4 (45%)
<b>Bestelako elikagaiak</b>	6 (16,5%)	Europa	6 (100%)